HOGOITA ZORTZIGARREN ERAKASPENA

(I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1- Nun ikusiz ziren Ganix eta Matxin?
2- Norekin Noe salbatu zen uhalde handian?
3- Zer ondorio izanen zen Noek ez baku landatu aihena?

(II)

Sempere Elizako bestak. OIHANALDEKO BAZKARITIK
- 6 - LANDA-PLAZAN

GANIXEK

Baditake arnoa dautazun ikusi,
Jaunak egin gauzarik ez baitzaut itsusi;
Bainan gauza bat, Matxin, zuk behar onhetsi:
Bathaioko uretan ginela ikuzi.[29]

MATXINEK

Bathaioan, hala da, ura baliatu,
Baliatzen oraino, Jaunak nahi baitu...
Bainan, Gorphutz Sainduan, hark ura baztertu,
Eta kalitz barnerat arnoa hedatu.

GANIXEK

Jainko horrek munduan lurrak egin ditu,
Ibar zelaiak ere non nahi moldatu,
Ahutaraka aldiz mendiak altxatu...
Hiru aldiz gehiago urak tu largatu.

MATXINEK

Ur sobera edanik, uhalde handian,
Itho ziren jendeak mundu zabalean;
Noe zen bakarrikan salbatu untzian...
Aihena landatzeko bere mahastian.

GANIXEK

Oxala behin ere ezpalu landatu!
Lehen lehen aldian, bera zen moxkortu;
Bere haurretarik bat aitaz zen trufatu,
Aita harek baitzuen han madarikatu.

(III) ADITZ IKASKUNTZA

31- Baditake 32- Dautazun
33- Ez baitzaut 34- Ez balu.

31- IZAN. Potentiel Présent.

Ni izan naiteke (nitake) = je peux être
Hi -"- haiteke (hitake) = tu peux être
Zu -"- zaitezke (zitazke) = vous pouvez être
Hura -"- daiteke (ditake) = il peut être
Gu -"- gaitezke (gitazke) = nous pouvons être
Zuek -"- zaitezkete (zitazkete) = vous pouvez être
Hek -"- daitezke (ditazke) = ils peuvent être

32- UKAN - Conjugaison à double cplt. Indicatif Présent

C.D. Singulier — C.I. Pluriel

Neri = à moi

Zuk dautazu = vous me l'avez
Harek daut = il me l'a
Zuek dautazue = vous me l'avez
Heiek dautate = ils me l'ont

C.P.: Erraiten dautazu = Vous me le dites.

. . . . . .

Zuri = à vous

Nik dauzut = je vous l'ai
Harek dauzu = il vous l'a
Guk dauzugu = nous vous l'avons
Heiek dauzute = ils vous l'ont

C.P.: Emaiten dauzu = il vous le donne

. . . . . .

Hari = à lui

Nik diot (dakot) = je le lui ai
Zuk diozu (dakozu) = vous le avez
Harek dio (dako) = il le lui a
Guk diogu (dakogu) = nous le lui avons
Zuek diozue (dakozue) = vous le lui avez
Heiek diote (dakote) = ils le lui ont

C.P.: Erraiten diogu (dakogu) = nous le lui disons